

KAIO HAUSKARA, ITSAS BELE ZURIA

Jose Ramon Aihartza

KAIO hausgara (*Larus argentatus*) dugu, zalantzarik gabe, Euskal Herriko kostaldeko hegaztirik ezagunena. Maiz ikusten da gure hondartza eta itsasadarretan, portu eta bokaletan, edota estolderi isurketetan janari bila dabilela.

Gure karioen artean arruntena eta hedatuena den honek kilotik gorako pisua, eta 55-70 cm-ko altuera ditu. Ale helduak lumajea ia erabat zuria du, bizkarrean eta hegal gainetan izan ezik; hauek gris urdinskak bait ditu. Hegal-muturretan ordea, zuriz orbaindutako kolore beltza ageri dute. Hanken kolorazioa aldakor samarra da espezie honetan, baina Euskal Herrian bizi den *michaelis* subspeziean horia izan ohi da. Mokoa ere horia dute, bertan ageri den orbain gorri biziak txitoen hazkuntzan garrantzi handia izan bide duelarik.

J.R.Aihartza



Kaio hausgararen fitxa teknikoa eta Euskal Herrian duen banaketa-mapa.

FITXA TEKNIKOA

KAIO HAUSKARA

ESPEZIEA:

Larus argentatus

FAMILIA:

LARIDAE


ORDENA:

KARADRIFORMEAK

KLASEA:

HEGAZTIAK

BANAKETA-MAPA



Hegalari bikaina da, eta hegakada indartsu jarraiei esker altitude ertain eta handietan ere lasai asko ibil daiteke. Igerilaria ere bada, eta sarritan ikus daiteke uraxalean geldirik, talde handitan atseden har-

Kaio hausgara dugu Euskal Herriko kostaldeko hegaztirik ezagunena.

tzen edota lotan. Ez du itsas ertzetik aldentzeko joerarik. Aldiz, bertan gora eta behera ibiltzen da janaria edota gaua pasatzeko leku atseginen bila. Arrantzuntzien atzetik ere maiz ikus daiteke, eta hori gertatzen denean, untziak arraina dakarrenearen seinale izaten da.

Animalia hau, antxeta mokogorriarekin (*Larus ridibundus*) batera


Euskal Herriko Fauna

Normalean 2 edo 3 arrautza erruten dituzte txitaldiko, eta hau urtean bakarra izaten da.

J.R.Aihartza



J.R.Aihartza



Txita arrautza zulatzen.

J.R.Aihartza



Arrautzatik irtenberria den txita.

hedatzen ari da Europa osoan. Bere arrakastaren arrazoiatariko bat, hegazti honek edozein motatako elikagaiak aprobeztatzeko duen erraztasuna da zalantzarik gabe, eta aldi berean gizakiaren gertutasunari eusteaz gainera, beroni etekinik ateratzen ere ondo aski jakin du, bere faboretan. Beste itsas hegazti askok bezala, arrainez, zizare eta beste ornogabez, eta itsasoak eskaintzen dizkion sarraskiez eli-

katzen den arren, zabortegetakoak eta estolderiak garraiatutako beste makina bat hondakin ere ikasi du jaten. Horrela, elikagaien eskuragarritasuna ez da muga benetako itsas bele izatera iritsi den hegazti honen hedapenerako.

Jaio eta egun gutxitara inguruko belar edo harrietara egiten dute txitek ihes, bertan ezkutatu.

Kaio hausgara, beste hainbat itsas hegazti bezalaxe, animalia gregarioa da. Joera taldekoa janari bila ari denean, migrazioetan, kolonia negutiarretan, eta ugalketan ere ikus daiteke. Euskal Herrian habia-leku garrantzitsuenak Bakion, Gaztelugatxen, Izaron, Ogoñoko haitzetan, Igeldon, Ulian eta Jaizkibelen aurkitu dira. Iparraldean berriz ez omen du habiarik egiten, honen arrazoa batipat iparraldeko itsas ertzaren topografia laun eta erraza izan daitekeelarik.

Izan ere, kaio hauskarak kostaldeko lekurik zail eta eskuragaitzenak aukeratzen bait ditu habia egiteko: irla harkaitzsuak, haitzebakiak, etab. Leku hauetan, eta apiriletik aurrera, kaio-talde handiak biltzen dira habiak egiteko. Habia hauek ar eta emeen artean eraikitako belarrezko egiturak izan ohi dira, eta harkaitzetako ertz eta zulotan kokatzen dituzte. Normalean 2-3 arrautza jartzen dituzte txitaldiko, eta hau urtean bakarra izaten da. Hala ere, habia ugal-sasoia hesian galduz gero, bigarrena aurrera ateratzen ere saia daitezke. Habia lurrean egiten duten hegazti gehien kasuan bezalaxe, kaio hauskararen arrautzek kolorazio kriptikoa dute. Hauek pintarratuak izaten dira. Oinarriko koloreak berriz, arre berdeskatik urdinerainoko aldakortasuna ageri du. 25-33 egunen buruan jaioko diren txitoek ere

J.R.Aihartza



Euskal Herriko Fauna

J.R.Aihartza



Hegalari bikaina da kaio hauskara, eta hegakada indartsu jarraiei esker altitude ertain eta handietan ere lasai asko ibil daiteke.

antzerako kolorazioa dute, eta jaio eta egun gutxitara inguruko belar edo harrietara egiten dute ihes, bertan ezkutatu. Txitaketa emeak soilik burutzen du, eta bitartean, arra bere habiari dagokion lurraldea gainerako kaioengandik defendatzeaz arduratzen da. Izan ere, ugalketa-koloniatan habiak bata-bestetik gertu izaten bait dira oso. Txitoak haztea berriz, arraren eta emearen lana izaten da. Dirudieenez, kaio helduek mokoan ageri duten orbain gorriak erakarri egiten

Kaio hauskara, beste hainbat itsas hegazti bezalaxe, animalia gregarioa da.



J.R.Aihartza

J.R.Aihartza



du txittoa, eta mokoka hasten zaie bertan, janari eskean. Orduan, helduek erdi-liseritutako elikagaiak ematen dizkiote. Txittoaren bizitzako lehen egunetan iharduera hau habian bertan gertatzen da, baina geroxeago txittoa inguruko belar eta harri-zulotan mantentzen da bere gurasoak heldu arte. Une horretan, ezkutalekua utzi eta ziztu bizian inguratzen zaizkie bazkaren bila.

Txitoak, jaio eta sei astera hegan egiteko gai dira jadanik. Adin horretan beren kolorazioa nahikoa desberdina gertatzen da helduena-

Ez du itsas ertzetik aldentzeko joerarik. Aldiz, bertan gora eta behera ibiltzen da janaria edota gaua pasatzeko leku atseginen bila.

ren aldean: bizkarra eta hegalen gaineko aldea arreak eta ilunez jaspeztatuak ageri dituzte; isatsa marra zuriska eta arre ilunez jantzita, eta moko eta hankak beltzak; sabel-aldea berriz, zuriska izaten dute, baina beti ere arrez jaspeztatua. Kolorazio hau lau urtean zehar aldatuz joango da, epe horren bukaeran eta heldutasun sexualarekin batera helduen janzkera zuri bikaina ere lortuko dutelarik.

Kaio hauskarak banaketa holaraktikoa du. Iparramerikako iparraldean, Europan, Asian eta Afrikako iparraldeko kostaldetan egiten du habia, eta baita Islandian eta Atlantikoko irletan ere. Sedentarioak eta migratzaileak ere izan daitezke, eta kasu guztietan sakanbanatze-mugimenduak burutzen dituzte. 